



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2026ko otsailaren 6a

10. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru-lege proposamenak:

—11-25/PRO-00019. Foru-lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonen dituzten eskubideei eta betebeharrei buruzko azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legea aldatzeko. Osoko Bilkurak ez du aintzat hartu (3. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 11-26/POR-00043. Galdera, 2022ko suteen ondotik Valtierra mendian ezarritako leheneratze-neurriei buruzkoa. Carlos Mena Blasco jaunak egin du (4. or.).
- 11-26/POR-00044. Galdera, San Kristobal gotorlekua dela-eta Nafarroako Gobernuak eta Estatuak sinatutako koordinazio-protokoloari buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (4. or.).
- 11-26/POR-00045. Galdera, tentsiopeko etxebizitza-merkatuaren eremuak aplikatzeari buruzkoa. Kevin Lucero Domingues jaunak egin du (5. or.).
- 11-26/POR-00046. Galdera, despopulatzearen aurkako eta landa garapenerako foru legearen aurreproiektua zertan den eta Gobernuak zer denbora-aurreikuspen darabilen jakiteko. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egin du (6. or.).
- 11-26/POR-00047. Galdera, migratzaileen erregularizazioari buruzkoa. María Olga Chueca Chueca andreak egin du (6. or.).
- 11-26/PES-00023. Galdera, Caparrosoko Kristo Santuari buruzkoa. Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egin du (7. or.).
- 11-26/PES-00024. Galdera, Uharteko Virgen Blanca ikastetxeari buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (8. or.).
- 11-26/PES-00025. Galdera, Volkswagen Navarraren ez-betetzei buruzkoa. Laura Aznal Sagasti andreak egin du (8. or.).
- 11-26/PES-00026. Galdera, Alvia trenak Altsasuko geltokian geldialdi komertzial berriak egiteari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (9. or.).

- 11-26/PES-00027. Galdera, abeltzaintzako eta nekazaritza-elikagaien hondakinei buruzkoa. Carlos Guzmán Pérez jaunak egin du (10. or.).
- 11-26/PES-00028. Galdera, simaurren kudeaketari buruzko foru dekretua taxutzeari buruzkoa. Carlos Guzmán Pérez jaunak egin du (11. or.).
- 11-26/PES-00029. Galdera, Sarrea Euskal Udalekuak elkarteak Abaigarren eta Goñin udalekuak irekiko dituela iragarri ondoren hartuko diren neurriei buruzkoa. Emilio Jiménez Román jaunak egin du (11. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- 11-26/ACOP-00003. Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren Erabakia, zeinaren bidez errefusatzeko baitu Estatu Batuetako Gobernuaren 2026ko urtarrilaren 29ko agindu betearazlea, zeinaren bidez ustezko larrialdi nazionala deklaratzeko baita (12. or.).
- 11-26/ACOP-00004. Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren Erabakia, zeinaren bidez arbuiatu egiten baititu delitu baten edozein biktimari datxezkion eskubideak urratzen dituzten praktika polizial eta judizialak (12. or.).

B saila:
FORU-LEGE PROPOSAMENAK

11-25/PRO-00019. Foru-lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonak dituzten eskubideei eta betebeharrei buruzko azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legea aldatzeko

OSOKO BILKURAK EZ DU AINTZAT HARTU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2026ko urtarrilaren 29an, erabaki du aintzat ez hartzea Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonak dituzten eskubideei eta betebeharrei buruzko azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legea aldatzeko foru-lege proposamena, zeina Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkeztu baitzuen eta 2025eko azaroaren 29ko 143. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

11-26/POR-00043. Galdera, 2022ko suteen ondotik Valtierrako mendian ezarritako leheneratze-neurriei buruzkoa*CARLOS MENA BLASCO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Mena Blasco jaunak egindako galdera, 2022ko suteen ondotik Valtierrako mendian ezarritako leheneratze-neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko otsailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Carlos Mena Blasco jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2022ko suteen ondoren, Valtierrako mendiak kalte oso nabarmena izan zuen; hori dela-eta, denboran zehar etengabe esku hartu behar da, behar bezala lehengorutzen dela bermatzeko. Neurri batzuk hartu badira ere, beharrezkoa da zehaztasun handiagoz jakitea hartutako neurrien benetako irismena.

Horregatik, zer neurri hartzen ari dira Valtierrako mendian 2022ko suteen ondoren?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 28an

Foru parlamentaria: Carlos Mena Blasco

11-26/POR-00044. Galdera, San Kristobal gotorlekua dela-eta Nafarroako Gobernuak eta Estatuak sinatutako koordinazio-protokoloari buruzkoa*MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak egindako galdera, San Kristobal gotorlekua dela-eta Nafarroako Gobernuak eta Estatuak sinatutako koordinazio-protokoloari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko otsailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Asiain Torresek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilari Ana Olo Hualde andreak:

Gaur bertan, Foru Komunitateak eta Espainiako Gobernuak koordinazio-protokolo bat sinatu dute, San Kristobal Gotorlekua Memoria Demokratikoaren Leku izan dadin. Horregatik, galdera hau egiten diogu kontseilari: zer ekarriko du egiaz Estatuak eta Nafarroak San Kristobal gotorlekuari buruzko protokoloa sinatzeak?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 28an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

11-26/POR-00045. Galdera, tentsiopeko etxebizitza-merkatuaren eremuak aplikatzeari buruzkoa

KEVIN LUCERO DOMINGUES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Kevin Lucero Domingues jaunak egindako galdera, tentsiopeko etxebizitza-merkatuaren eremuak aplikatzeari buruzkoa.
 2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
 3. Osoko Bilkuran izapidetzea.
- Iruñean, 2026ko otsailaren 2an
Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Kevin Lucero Domingues jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko lehendakariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Joan den uztailaren 30ean, Nafarroako 21 udalderri tentsiopeko etxebizitza-merkatuaren zonalde deklaratu ziren.

Duela gutxi, zonaldeen funtzionamenduari buruzko lehen datuak ezagutu ditugu; besteak beste, kontratuen alokairuaren prezioa jaitsi da eta sinatutako kontratuak egonkortu egin dira.

Zer balorazio egiten du Nafarroako Gobernuak tentsiopeko etxebizitza-merkatuaren zonaldeen aplikazioari buruz?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 29an

Foru parlamentaria: Kevin Lucero Domingues

11-26/POR-00046. Galdera, despokatzearen aurkako eta landa garapenerako foru legearen aurreproiektua zertan den eta Gobernuak zer denbora-aurreikuspen darabilen jakiteko

MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako galdera, despokatzearen aurkako eta landa garapenerako foru legearen aurreproiektua zertan den eta Gobernuak zer denbora-aurreikuspen darabilen jakiteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko otsailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendiak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak eta hura osatzen duten alderdi politikoei askotan adierazi dute despokatzearen aurkako eta landa garapenerako foru legearen aurreproiektua lantzen ari direla Gobernuan.

Hori dela-eta, honako galdera hau aurkezten dut, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Zertan da despokatzearen aurkako eta landa garapenerako foru legearen aurreproiektuaren taxutzea eta zer denbora-aurreikuspen darabil Nafarroako Gobernuak foru-lege proiektu hori Nafarroako Parlamentura bidaltzeari dagokionez?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 29an

Foru parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

11-26/POR-00047. Galdera, migratzaileen erregularizazioari buruzkoa

MARÍA OLGA CHUECA CHUECA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Olga Chueca Chueca andreak egindako galdera, migratzaileen erregularizazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko otsailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Olga Chueca Chueca andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Migratzaileen ezohiko erregularizazioak migrazioa kudeatzeko jardunbide finkatua dira. 80ko hamarkadaz geroztik, Espainiak era horretako hainbat prozesu onetsi ditu, 4 Alderdi Sozialistak bultzatuta eta 2, berriz, Alderdi Popularrak. Premia soziala eta adostasun politiko, ekonomiko eta sozial zabala ikusita, Espainiako Gobernuak ezohiko erre-

gularizazioa egingen du, gure herrialdean administrazio-egoera irregularrean dauden etorkinek egoera hori erregularizatu ahal izan dezaten.

Nola eraginen die neurri horrek Nafarroan egoera horretan dauden 10.000 migratzaileei?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 29an

Foru parlamentaria: Olga Chueca Chueca

11-26/PES-00023. Galdera, Caparrosoko Kristo Santuari buruzkoa

FRANCISCO JAVIER TRIGO OUBIÑA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egindako galdera, Caparrosoko Kristo Santuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakolari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko otsailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Javier Trigo Oubiña jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean,

honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2024ko ekainean, Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak 11-24/PES-00287 galderari erantzun zion. Galdera hori Nafarroako Gobernuak Caparrosoko Kristo Santuaren egoerari erantzuteko dituen planei buruzkoa zen. Erantzun horren harira, honako hau galdetzen dut:

1. Ba al dago higiezinaren plano-jasotze egokirik?

2. Egin al dira aurretiazko azterlanak informazio espezializatua eskuratzeko higiezinaren egituraren kontserbazio egoerari buruz?

3. Teknikari espezialisten laguntza eskatu al da higiezinaren egoera azter dezaten?

4. Teknikariek aztertu al dituzte, dagozkion segurtasun neurriak hartuta, gangak desmuntatzeko, egitura sendotzeko eta balorazioa egiteko gauzatzen ahal diren jarduketak?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 26an

Foru parlamentaria: Javier Trigo Oubiña

11-26/PES-00024. Galdera, Uharteko Virgen Blanca ikastetxeari buruzkoa**ENEKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, Uharteko Virgen Blanca ikastetxeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintukoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko otsailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu-Nafarroa taldeko foru parlamentari Eneka Maiz Ulaiar andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, Hezkuntza Departamentuari eskatzen dio galdera hau idatziz erantzun diezaien.

Uharteko Virgen Blanca ikastetxeko Zumedia APYMAk kezka adierazi du ikastetxe horretan lanean hasi berria den irakasle baten aurrekariengatik eta horrek haien seme-alabengan izan dezakeen

eraginagatik. Izan ere, Atarrabiako Atargi ikastetxeko familiek, 2024-2025 ikasturtean, protesta egin zuten irakasle horrek ikasleekin ustez izan zuen jarrera salatzeke.

– Irakasle horrek zein ikastetxetan du plaza?

– Zein da irakasle horren lan-egoera? Noiz arte?

– Zein neurri hartu ditu Hezkuntza Departamentuak ikastetxean sortutako egoera hori bideratzeko?

– Zein tresna edo protokolo du Hezkuntza Departamentuak horrelako egoeretan hezkuntzalkitatea, konfiantza eta segurtasuna beteko direla bermatzeko?

– Salbuespenezko neurriak hartu behar izan direla ikusirik, Hezkuntza Departamentuak bermadezake irakasle horrek bere lana ongi egiteko ezaugarriak betetzen dituela?

– Salbuespenezko neurriak hartu behar izan direla ikusirik, Hezkuntza Departamentuak balortu al du formularik (eginkizun-zerbitzua...) irakasle hori ikasleen arreta zuzenik gabeko eginkizunetan kokatzeko?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 26an

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

11-26/PES-00025. Galdera, Volkswagen Navarraren ez-betetzeei buruzkoa**LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak egindako galdera, Volkswagen Navarraren ez-betetzeei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintukoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko otsailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagasti andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aur-

kezten du, Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Errendimendu ordainsariei eta helburuei buruzko ebazpen judizialaren ondoren, zeinaren bidez 15/2022 Legearen arabera (2022ko Europako araudia) ezin baitira diskriminatu bajaran daudenak eta jardunean egonen balira bezala ordaindu behar baitzaie, eta kontratazioan lege iruzurragatik ikuskaritzak egindako errekerimenduen ondoren, Nafarroako VWko zuzendaritzak publikoki mehatxatu ditu langileak soldata murrizketekin, enpleguaren prekarizazioarekin (ABLEak) eta balizko EEEden, baita manufaktura-erreleboan ez sartzearekin ere.

VW Navarra SAK (Nafarroako enpresa estrategikoa eta Nafarroako Gobernuaren aldetik laguntza ekonomiko publiko oso handien onuraduna) publikoki adierazi du sistematikoa dela kontratazio-legearen ez-betetzea, eta ez-betetze hori egiten jarraitzeko borondatea duela. Kontseilariak zer irizten dio horri?

Enpresak errelebo-kontratuaren aplikazioari dagokionez indarrean dagoen enpresa-hitzarmena ez aplikatzeko mehatxua egin du. Kontseilariak zer irizten dio horri?

Aurreikusten al du departamentuak ezer egitea gertaera horien aurrean?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 27an

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

11-26/PES-00026. Galdera, Alvia trenak Altsasuko geltokian geldialdi komertzial berriak egiteari buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, Alvia trenak Altsasuko geltokian geldialdi komertzial berriak egiteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko otsailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak Lurralde Kohesioko Departamentuari egindako honako galdera hauek aurkeztu dizkio Mahaiari, idatziz erantzun dakizkion:

A) Jarraian aipatzen diren trenak Altsasutik igarotzen dira, Donostiatik edo Irundik etorrita Madril/Chamartínera bidean, Altsasuko geltokian geldialdirik egin gabe:

- 040556 trena: 06:26 Donostia-Madril Chamartín (astelehenetik ostiralera)

- 04086 trena: 10:15 Irun-Madril Chamartín (egunero)

- 04157 trena: 15:47 Donostia-Madril Chamartín (igandeetan)

- 04566 trena: 18:24 Donostia-Miranda de Ebro (egunero)

Tren hori zenbakiz aldatzen da Miranda de Ebron, eta Madril Chamartíneraino jarraitzen du.

B) Jarraian aipatzen diren trenak Altsasutik igarotzen dira, Madril Chamartínetik etorrita Donostia edo Irunera bidean, Altsasuko geltokian geldialdirik egin gabe:

- 04287 trena: 11:10 Miranda de Ebro-Donostia (egunero) edo zenbakiz aldatzen da Miranda de Ebron, baina Madril Chamartínetik dator.

- 04157 trena: 18:09 Madril Chamartín-Donostia (egunero, larunbatetan izan ezik)

- 04177 trena: 21:20 Madril Chamartín-Irun (egunero)

Aipatutako tren guztiak, normalean, programatutako ordua baino lehenago ibiltzen dira.

Errealitate hori kontuan hartuta, eta lurralde-koherenari eta Sakanako, Arabako lautadako eta Gipuzkoako Goierriko zenbait herritako biztanleei zerbitzuak eskaintzeari dagokionez ekarriko lituzkeen onurak kontuan hartuta, eta Gipuzkoarekiko lotura hobetze aldera, honako galdera hauek egiten dira, idatziz erantzuteko:

1. Departamentuak uste du positiboa izanen litzatekeela Sakanako biztanleentzat Altsasutik iga-

rotzen diren aipatutako 7 trenek herri horretan merkataritza-geldialdia egitea?

2. Departamentuak kudeaketarik egin al du edo egiteko asmoa al du ministerio eskudunaren aurrean beste tren horiek Sakanako herritarrei eskaini ahal izateko?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 29an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

11-26/PES-00027. Galdera, abeltzaintzako eta nekazaritza-elikagaien hondakinei buruzkoa

CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako galdera, abeltzaintzako eta nekazaritza-elikagaien hondakinei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko otsailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko eledun Carlos Guzmán Pérezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzuteko:

11-25/PEI-00979 informazio-eskaerari emandako erantzunari dagokionez, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari honako galdera idatzi hau egin zaio informazio osagarria lortzeko:

Abeltzaintzako eta nekazaritza-elikagaien hondakin guztiak instalazio zentralizatueta biometanizatze erabil daitezkeela uste al da?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 29an

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

11-26/PES-00028. Galdera, simaurren kudeaketari buruzko foru dekretua taxutzeari buruzkoa

CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako galdera, simaurren kudeaketari buruzko foru dekretua taxutzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko otsailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko eledun Carlos Guzmán Pérezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzuteko:

11-25/PEI-00979 informazio-eskaerari emanda erantzunari dagokionez, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari honako galdera idatzi hau egin zaio informazio osagarria lortzeko:

Zein egoeratan dago simaurren kudeaketari buruzko foru dekretuaren taxutzea, zein egutegi aurreikusten da eta zein eragile ari dira parte hartzen aipatutako foru dekretuaren prestaketan?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 29an

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

11-26/PES-00029. Galdera, Sarrea Euskal Udalekuak elkarteak Abaigarren eta Goñin udalekuak irekiko dituela iragarri ondoren hartuko diren neurriei buruzkoa

EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak egindako galdera, Sarrea Euskal Udalekuak elkarteak Abaigarren eta Goñin udalekuak irekiko dituela iragarri ondoren hartuko diren neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko otsailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Talde Mistoko kide eta VOXeko foru parlamentari Emilio Jiménez Román jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Jakin dugunez, Carmen Adán Euskal Autonomia Erkidegoko fiskal nagusiak prebentzio- eta kontrol-neurriak hartzeko eskatu die administrazio publikoei, udalekuak berriro irekitzen badira. Nafarroaren kasuan, Abaigarren eta Goñin daudenak.

Zer neurri hartzeko asmoa du Nafarroako Gobernuak Sarrea Euskal Udalekuak, ikerketa judicialari lotuta dagoen elkarteak, Abaigar eta Goñiko udalekuak irekiko dituela iragarri ondoren?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 29an

Foru parlamentaria: Emilio Jiménez Román

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-26/ACOP-00003. Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren Erabakia, zeinaren bidez errefusatu baitu Estatu Batuetako Gobernuaren 2026ko urtarrilaren 29ko agindu betearazlea, zeinaren bidez ustezko larrialdi nazionala deklaratu baita

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 2an eginiko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Lehenengoa:

1. Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten du Estatu Batuetako Gobernuaren 2026ko urtarrilaren 29ko agindu betearazlea, zeinaren bidez ustezko larrialdi nazionala deklaratu baita eta Kuba petrolioz hornitzen duten herrialdeetatik heldu diren produktuen inportazioei muga-zergak ezartzeko aukera ematen baita.

2. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak exijitzen du berehala eta baldintzarik gabe altxa dadin Kubako Errepublikaren aurkako blokeo ekonomi-

ko, komertzial eta finantzarioa, eta erabat errespeta daitezkeen haren subiranotasuna eta bere bidea kanpoko esku-hartzerik gabe erabakitzeko eskubidea.

3. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak Kubako Errepublikaren Espainiako enbaxadari erabaki hau helaraziko dio.

Bigarrena:

Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko otsailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-26/ACOP-00004. Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren Erabakia, zeinaren bidez arbuia egiten baititu delitu baten edozein biktimari datzekion eskubideak urratzen dituzten praktika polizial eta judizialak

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 2an eginiko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Lehenengoa:

1. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak arbuia egiten ditu delitu baten edozein biktimari datzekion eskubideak urratzen dituzten praktika polizial eta judizialak.

2. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak emakumeen eskubideen defentsan eta ikerketa polizial eta judizialen inpartzialtasunaren defentsan konpromiso irmoa agertzen du.

3. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak elkartasuna adierazten die bai Nafarroako Polizia Nazionalak bai sistema judizialak huts egin dieten bi emakume nafarrei.

Bigarrena:

Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko otsailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias